Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Yvonne Quesson

Bardoze, Lapurdi (1923-2018)



Aurkibidea

Biografia



Sortzez Yvonne Dermitte. Bastidan sortu zen 1923ko azaroaren 14an, Bidon auzoko Pervòst etxean. Aita-amak bardoztarrak zituen, aita Iratxeta etxekoa, ama Jemenea etxekoa. 8 urte zituelarik, Bardozeko Ibarre auzoko Ibarbidea etxera itzuli ziren bizitzera, eta ondoren, Bardozeko kantonierra luzaz izan zen André Quesson jaunarekin ezkondu zen. Seme bat izan zuten. Erresistentzian sartu zen Yvonne Donapaleun josten ikasten zuelarik. Hirueleduna baldin bazen ere, euskara eta gaskoia ez ditu gehiago aise mintzatzen. Elkarrizketatzerakoan, bakarrik bizi zen Ibarbidea etxean.

Zintak

BDZ-007

- **Proiektua**: Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Erremundeguy, Joseba
- **Data**: 2014-01-08
- **Iraupena**: 48 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Dibon, Peio

Pasarteak

1. Bastidan sortu, Bardozera itzuli

- **Erref**: BDZ-007/002
- **Iraupena**: 0:01:19. **Hasi**: 00:00:02. **Bukatu**: 00:01:21

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Gurasoak bardoztarrak zituela erraten digu Yvonnek. Aita bidezaina Bastidan izendatu zutelarik, familia hara joan zen bizitzera. Berantago, Bardozera itzuli ziren, amarengandik ondoriotasunez ukan zuten etxera.

2. Ibarre auzoko hiru etxeetatik

- **Erref**: BDZ-007/003
- **Iraupena**: 0:00:36. **Hasi**: 00:01:21. **Bukatu**: 00:01:57

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Yvonnen ama ez zen ondoriotasunez ukan zuen Ibarbidea etxean sortu, baizik eta Jemenea deituriko etxean. Aita aldiz, Iratxeta etxekoa zen, Errekaldea etxetik hurbil.

3. Bastida ez da euskalduna

- **Erref**: BDZ-007/004
- **Iraupena**: 0:00:18. **Hasi**: 00:01:57. **Bukatu**: 00:02:15

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Bastidan zirelarik, Pervòst deituriko etxean egon ziren. Etxe honen izenak erakusten du herri horretan gaskoi hizkuntzak duen tokia. Yvonnek dio ez dela euskalduna Bastida.

4. Lau ahizpa

- **Erref**: BDZ-007/005
- **Iraupena**: 0:01:03. **Hasi**: 00:02:15. **Bukatu**: 00:03:18

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Lau ahizpa zirela dio Yvonnek: bera ahizpa biritxi batekin sortua eta beste bi neska.

5. Etxeko lanak amak eginak

- **Erref**: BDZ-007/006
- **Iraupena**: 0:00:48. **Hasi**: 00:03:18. **Bukatu**: 00:04:06

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Zortzi urte zituelarik Bardozera itzuli zirelan erraten digu Yvonnek. Haren aita kanpoan lan egiten zuen. Ama aitzitik, etxeko lanetan aritzen zen.

6. Donapaleura josten ikastera

- **Erref**: BDZ-007/007

- **Iraupena**: 0:00:47. **Hasi**: 00:04:06. **Bukatu**: 00:04:53

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:
1939an, Donapaleu hirira joan zen Yvonne josten ikastera. 1945ean bururatu zuen bere irakaspena. Garai hartan, sartu zen, ustekabean, Erresistentzian.

7. Senarrak euskaraz ez zekien

- **Erref**: BDZ-007/009
- **Iraupena**: 0:00:33. **Hasi**: 00:16:09. **Bukatu**: 00:16:42

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Yvonnen senarra 'Assitance Publique' erakundekoa zen, eta zazpi hilabeterekin Bardozeko familia batean ezarri zuten. Jarri zuten familian gaskoia baizik ez zekiten. Horregatik, euskararik ez zuen ematen.

8. Hirueletasuna

- **Erref**: BDZ-007/011
- **Iraupena**: 0:00:44. **Hasi**: 00:16:51. **Bukatu**: 00:17:35

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Hirueleduna dela dio Yvonnek, euskara, gaskoia eta frantsesa dakizkielako. Euskara aita-amarekin ikasi zuen, eta Donapaleun egon zelarik ondu.

9. Biritxiarekin euskaraz

- **Erref**: BDZ-007/012
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:17:35. **Bukatu**: 00:18:21

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Ahizparekin euskaraz egiten dutela dio Yvonnek. Inguruetako zaharretxeetara joaten delarik, egoiliar pozik daude harekin euskaraz egiteagatik.

10. Bastidako lehenbiziko euskaldun bakarrak

- **Erref**: BDZ-007/013
- **Iraupena**: 0:00:27. **Hasi**: 00:18:21. **Bukatu**: 00:18:48

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Gaskoia Bastidan ikasi zuen Yvonnek, han egon zelako txikitan. Gehitzen du ez zela euskaldunik denboran hartan Bastidan. Bere gurasoak lehenbizikoak zirela dio.

11. Bardoztar guziak euskaraz

- **Erref**: BDZ-007/014
- **Iraupena**: 0:00:52. **Hasi**: 00:18:48. **Bukatu**: 00:19:40

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera

Laburpena:
Oroitzen da Yvonne Bardozen erro zaharrak zituzten familia guziak euskaldunak zirela. Kristau ikasbidea euskaraz egiteko ahala bazuten euskaldunek.

12. Bardozeko euskara, gaskoiarekin nahasia

- **Erref**: BDZ-007/015
- **Iraupena**: 0:00:19. **Hasi**: 00:19:40. **Bukatu**: 00:19:59

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Bardozeko euskara ez dela garbi-garbia iruditzen zaio Yvonneri. Aski nahasia da hizkera hau, gaskoiarekin nahasia hain zuzen.

13. Euskaldun elebakarrak vs. Gaskoi elebakarrak

- **Erref**: BDZ-007/016
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:19:59. **Bukatu**: 00:20:45

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Gehienek euskaraz bazekitela dio Yvonnek. Aldiz, euskaldun bai eta ere gaskoi elebakarrak zirenak bazeuden. Lortzen zuten elkar konprenitzen, 'ahal bezala'...

14. Bi katixima

- **Erref**: BDZ-007/018

- **Iraupena**: 0:00:26. **Hasi**: 00:21:10. **Bukatu**: 00:21:36

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren jarrera
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Bi kristau ikasbide zirela dio Yvonnek, bata frantsesez, bestea euskaraz. Bi gurasoak euskaldunak zirelarik, haurrek euskaraz egin behar zuten katixima.

15. Euskara apalduz Bardozen

- **Erref**: BDZ-007/019
- **Iraupena**: 0:00:46. **Hasi**: 00:21:36. **Bukatu**: 00:22:22

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Familia gehienetan euskaldunak ziren. Orain aldiz, anitz galdua da hizkuntza Bardozen. Yvonne bezalako zahar batzuk badakitela oraindik pentsatzen du.

16. Xarnegu herrialdea, nahastekaren tokia

- **Erref**: BDZ-007/021
- **Iraupena**: 0:00:16. **Hasi**: 00:22:37. **Bukatu**: 00:22:53

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
'Xarnegu herrialdea ez dela deus erraten du Yvonnek. "Zernahi" dela dio, "nahasteka"…

17. Zertifikata ondotik barnetegira

- **Erref**: BDZ-007/022
- **Iraupena**: 0:00:34. **Hasi**: 00:22:53. **Bukatu**: 00:23:27

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolara herritik kanpo
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:
Hamalau urte arte egon zen eskolan Yvonne. Zertifikata 1935ean eskuratu ondoan, Angeluko serorek zeukaten 'Le Refuge' barnetegira joan zen bizitzera gazte denbora osoan.

18. Alemanak Donapaleutik partituak

- **Erref**: BDZ-007/028

- **Iraupena**: 0:00:19. **Hasi**: 00:28:03. **Bukatu**: 00:28:22

Gaia(k):

- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Eragina Ipar Euskal Herrian
- Politika » II. Mundu Gerra (1939-1945) » Alemaniarren alde edo kontra ibiliak

Laburpena:
Guda bururatu zelarik, Yvonne Donapaleun zegoen alemanak partitu aitzin egin zuten desfilean.

19. Hirueletasunetik elebakartasunera

- **Erref**: BDZ-007/035
- **Iraupena**: 0:00:42. **Hasi**: 00:38:11. **Bukatu**: 00:38:53

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Bere senar zenak gaskoia aise mintzatzen zuela dio Yvonnek. Bardozen, jendeen erdia euskalduna zela erraten du, beste erdia gaskoia zelarik. Orain aldiz, bi mintzairak apalduz doaz.

20. Zerria etxean hiltzen

- **Erref**: BDZ-007/040
- **Iraupena**: 0:01:25. **Hasi**: 00:41:35. **Bukatu**: 00:43:00

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Abere-hiltzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:
Zerria etxean berean hiltzen zuten Ibarbidean, etxe anitzetan bezala. Denboran, André bere senarrak gaskoiz 'la meit' deitutako ontzi berezi bat fabrikatu zuen, zerria ur irikinean bustitzeko.

21. Bardozeko gaskoia eta euskara itxuragabetuak

- **Erref**: BDZ-007/041
- **Iraupena**: 0:01:37. **Hasi**: 00:43:00. **Bukatu**: 00:44:37

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:
Yvonnen ustez, Bardozen mintzatzen den gaskoia itsusia da. Euskara aldiz, txarra. Gaskoia basa mintzaira bat baizik ez dela dio berak, euskara aitzitik egiazko hizkuntza bat.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-10-31

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com